

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK

LORENZO ZUBILLAGA GOICOECHEA
MARIA CRISTINA VAL SARDÓN
IÑAKI ELIZALDE ZUBILLAGA
NEREA YEREGUI BALDA
ANDER PRADOS OTAMENDI
IGOR OTERMIN EGUIA
AITZIBER OTAMENDI ECHARRI

BERTARATU EZ DIRENAK

IDAZKARIA

Joanes Aleman Ollo

Betelun, udaletxeko bilkura gelan, 2025eko ekainaren 24an arratsaldeko zazpi eta erdiak direnean, Lorenzo Zubillaga Goicoechearen jaunaren lehendakaritzapean eta egintzaren fede ematen duen Joanes Aleman Ollo idazkariak lagundurik ondoan aipaturiko zinegotziak elkartu dira.

Udal bilkura dagokion deialdiaren ondoren egin da, erreglamentuan ageri den aurrerapenarekin eta deialdia beraren eta gai zerrendaren ale bat udaletxeko iragarki oholean iragarri ondotik.

Ohiko izaera duen bilkura irekirik eta lehendakaritzak publikoa dela esanik; Idazkariak bilkura hasteko behar den zinegotzi kopurua bertaratu dela egiaztaturik; gai zerrendan diren ondoko puntuak aztertzeari ekin zaio.

1. 2025-05-28KO UDAL BILKURAKO AKTAREN ONARPENA

Deialdiarekin batera banatu den 2025-05-28ko bilkurako aktaren inguruan udalbatzako kideren batek zerbait esateko duen galdetu du lehendakariak.

Zinegotzi bakar batek ere ez du deus adierazi.

Lehendakariak akta bozkatzera ekarri eta udalbatzak aho batez onartu du.

2. ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENAK:

1. Ander Elizalde

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko maiatzaren 30ean, 28/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Ander Elizalderi EHME lasterketaren bilera egiteko Beteluko udaletxeko batzar gela erabiltzeko baimena ematea maiatzaren 30erako arratsaldeko 19:30erako.

2.- Ander Elizalde

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko maiatzaren 30ean, 29/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Ander Elizalderi ekainaren 7an egingo den EHME lasterketarako bozgoragailua erabiltzeko baimena ematea.

3. Maria Dolores Saralegui Goicoechea

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko ekainaren 5ean, 30/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Maria Dolores Saralegui jakinaraztea Beteluko Udalak Zamargin etxeko jabearekin hitz egin zuela eta bizilagunen kexaren berri eman ziola.

4. Nafarroako Arartekoa

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko ekainaren 5ean, 31/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Lakobeikoa 5. Blokeko behe plantako lokal bat gazte talde bati alkatatu zitzaiola ta, Lakobeikoa 5 eta 6ko auzokideen komunitateak Nafarroako Arartekoan jarritako kexaren harira, Beteluko Udalak gai horren inguruan egindako ekinbideak Nafarroako Arartekoari jakinaraztea.

5. Telefonica

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko ekainaren 7an, 32/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Telefonicari hirigintza lizentzia ematea 8340097 proiektuan aurreikusitako aureko linea egiteko.

6. Hezkuntza Departamentuarekin hitzarmena

2025eko ekainaren 9an Araizko Udaleko alkateak, Jose Manuel Zubillaga Muguerza Jaunak, **2025/33. EBAZPENA** eman zuen:

Beteluko "Araxes" HLHIP, Beteluko San Pedro, S.N. kalean kokatua, Nafarroako Gobernuak kudeatzen dituen ikastetxe publikoen sarean integratutako ikastetxea da, eskualdeko eskola jantoki zerbitzua duena.

Beteluko Udalak eta Araizko Udalak HLHIPko eskola jantokiko zerbitzuaren kudeaketa bere gain hartzeko asmoa dute.

Horretarako Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak hitzarmen proposamena helarazi du

EBATZI DUT:

LEHENENGOA: Hitzarmenari onespina ematea.

BIGARRENA: Udalbatzak eginen duen lehenengo bilkuran hitzarmen honen berri ematea hark berrets dezan

Alkateak ebazpena bozkatzera ekarri eta aho batez berretsi du udalbatzak.

7. Ordainketa agindua

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko ekainaren 11n, 34/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: 2025eko maiatzaren 28an egindako osoko bilkuran onartu ziren fakturak ordaintzea.

8. Haur eskolako egutegia eta ordutegia

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko ekainaren 12an, 35/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: 2025-2026 kurtsorako Sorgintxo Haur Eskola Haur hezkuntzako lehenengo zikloko zentroko ordutegia eta egutegia onartzea.

9. 2-40 lursailaren katastro aldaketa

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko ekainaren 16an, 36/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Beteluko 2. Poligonoko 40. Lursailaren mugaren katastro aldaketa onartzea.

10. 1-227 lursailaren katastro aldaketa

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko ekainaren 18an, 37/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Beteluko 1. Poligonoko 227 lursaila katastroan aldatzeko prozeduraren baitan, interesatuei espedientea eskuragarri jartzea, 15 egun baliodunean egoki iritzitako dokumentuak eta justifikazioak aurkeztu eta alegatu ahal izateko.

11. Diegaby Hostal SL

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko ekainaren 20an, 38/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Diegaby Hostal SLri baimena ematea ekainaren 27ko eta 28ko gauetan ixteko ordutegia goizeko 7:00ak arte (gehi taberna husteko denbora osagarria) luzatzeko.

3. ESKOLAKO JANTOKIAREN KUDEAKETARAKO HITZARMENA ARAXES GURASO ELKARTEAREKIN

Beteluko Antigua kaleko 9 bis zenbakian dagoen Araxes HLHIP Nafarroako Gobernuak kudeatzen dituen ikastetxe publikoen sarean integratutako ikastetxea da, eskualdeko eskola-jantoki zerbitzua duena.

Betelu eta Araizko Udalek beren gain hartu dute eskolako jantoki-zerbitzuaren kudeaketa, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuarekin egindako lankidetzak-hitzarmenaren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako eskola-jantokiak arautzen dituen maiatzaren 29ko 58/2024 Foru Dekretuaren 9.5 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

Araxes Guraso elkarte (IFK-G31190606) irabazi-asmorik gabeko elkarte da, eta eskola-jantokiko zerbitzuen kudeaketa bere gain hartzeko borondatea adierazi du.

Hau dena ikusita, udalbatzak aho batez ondokoa ONARTU DU:

Lehenengoa: Araxes Guraso Elkarteak eskolako jantoki-zerbitzuaren kudeaketa bere gain hartzeko hitzarmena onestea.

Bigarrena: Hitzarmena sinatzeko Beteluko Udaleko alkateari ahalmena ematea.

Hirugarrena: Hitzarmen hau Kontratu Publikoei buruzko Foru Legearen aplikaziotik kanpo dagoen negozio juridikotzat jotzen da, lege horren 7.1.j) artikulua arabera; izan ere, artikulua horren arabera, gizarte-, kultura-, hezkuntza- eta osasun-zerbitzuak zeharka kudeatzeko Nafarroako administrazio publikoek irabazi-asmorik gabeko erakundeekin egiten dituzten itunei ez zaie Kontratu Publikoei buruzko Foru Legea aplikatuko.

4.- 1/2025 AURREKONTU ALDAKETAREN HASIERAKO ONARPENEA

Udalbatzari ondorengo 1/2025 aurrekontu aldaketaren espedientearen hasierako onarpena proposatu zaio:

1. Ezohiko kreditua 1 1532 6190001 “Kale publikoa asfaltatzea eta egokitzea”: 18.000,00 euro.

“Gastu orokorretarako gerakina” 1 87000 sailarekin finantzatua: 18.000,00 euro

2. Ezohiko kreditua 1 4120 6190002 “Aiztixoko iturria”: 36.000,00 euro.

“Abeltzaintza instalakuntzetan inbertsioak egiteko dirulaguntza” 1 7508001 sailarekin finantzatua: 14.000,00 euro.

“Gastu orokorretarako gerakina eta eragindako baliabideak daudelako” 1 87000 sailarekin finantzatua: 22.000,00 euro

3. Ezohiko kreditua 1 3420 6320001 “Frontoiko argiak aldatu”: 17.000,00 euro.

“Trantsizio energetikorako dirulaguntza” 1 7508002 sailarekin finantzatua: 9.900,00 euro.

“Gastu orokorretarako gerakina eta eragindako baliabideak daudelako” 1 87000 sailarekin finantzatua: 1.270,00 euro

“Libre determinazioa” 1 7508003 sailean jasotako aurreikusi gabeko dirusarrerarekin finantzatua: 5.830,00 euro

4. Ezohiko kreditua 1 3230 64000 “ Auditoria eskolako argiak”. 3.300,00 euro

“Trantsizio energetikorako dirulaguntza” 1 7508002 sailarekin finantzatua: 2.600,00 euro.

“Libre determinazioa” 1 7508003 sailean jasotako aurreikusi gabeko dirusarrerarekin finantzatua: 700,00 euro

5. Ezohiko kreditua 1 1722 69000 "Desbrozeak Aiztitxon". 15.500,00 euro

"Baso jarduketendako dirulaguntza" 1 7508004 sailarekin finantzatua: 12.100,00 euro.

"Libre determinazioa" 1 7508003 sailean jasotako aurreikusi gabeko dirusarrerarekin finantzatua: 3.400,00 euro

6. Ezohiko kreditua 1 3110 4820001 "Elikadura proiektua". 1.800,00 euro

"Gastu orokorretarako gerakina" 1 87000 sailarekin finantzatua: 1.800,00 euro

7. Ezohiko kreditua 1 2391 22602 "Berdintasun kanpaina". 1.700,00 euro

"Gastu orokorretarako gerakina eta eragindako baliabideak daudelako" 1 87000 sailarekin finantzatua: 1.588,07 euro

"Gastu orokorretarako gerakina" 1 87000 sailarekin finantzatua: 111,93 euro

8. Ezohiko kreditua 1 3260 22105 "Eskolako jantokiko ahokularitza". 2.600,00 euro

"Eskolako jantokiei dirulaguntza" 1 7508004 sailean jasotako aurreikusi gabeko dirusarrerarekin finantzatua: 2.340,00 euro

"Gastu orokorretarako gerakina" 1 87000 sailarekin finantzatua: 260,00 euro

9. Ezohiko kreditua 1 4590 62200 "Eguzki plaken instalakuntza". 80.000,00 euro

"Partaidetzako tokiko garapen estrategikoei dirulaguntza" 1 7508005 sailean jasotako aurreikusi gabeko dirusarrerarekin finantzatua: 54.360,36 euro

"Libre determinazioa" 1 7508003 sailean jasotako aurreikusi gabeko dirusarrerarekin finantzatua: 10.200,88 euro

"Gastu orokorretarako gerakina" 1 87000 sailarekin finantzatua: 15.438,76 euro

Aldaketa Nafarroako Toki Ogasunaren 2/1995 Foru Legearen 212 eta hurrengo artikuluetan ezarritakoaren arabera egin da.

Nafarroako Toki Ogasunari buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 212. eta hurrengo artikuluen arabera eta Beteluko Udaleko 2025eko aurrekontauren exekuzio oinarrien 9. oinarriaren arabera, espediente hau jendaurrean izanen da 15 egun naturalez udal idazkaritzan, nahi duenak aztertu ahal izateko eta hala nahi izanez gero, egoki ikusten dituzten erreklamazioak egin ahal izateko.

Erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, honela onarturik dagoen espediente hau behin betikotzat joko da.

Lehendakariak akordioa bozkatzera ekarri eta udalbatzan diren guztiek aho batez onartu egin dute.

5. FAKTUREN ONESPENA

	KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
Vodafone	F. Otsaileko kontsumoa	207,93 €
Vodafone	F. Martxoko kontsumoa	204,08 €
Vodafone	F. Apiriko kontsumoa	204,08 €
Vodafone	F. Maiatzeko kontsumoa	204,53 €
Repsol	F. Gasoila	83,21 €
Venus Campos	F. Maiatzeko garbiketak	2.833,41 €
Geserlocal	F. A0029/000594	255,88 €
Iberdrola	F. Udaleko pisua	10,50 €
Iberdrola	F. Urberoa	7,48 €
Iberdrola	F. Argiztapen publikoa	131,20 €
Angelines Carrillo Rruiz	F. A 10/2025	90 €
Iberdrola	F. Argiztapen publikoa	321,41 €
Euskara Zerbitzua	F.aurrekontu orokorraren %50	3.959 €
Euskara Zerbitzua	F. eskualdeko aurrekontuaren %50	4.510 €
Urzubi	F. A 555	1.207,88 €
IDM Medical	F. 949	131,07 €
Goienar	F. maiatza udaletxea	529,81 €
Goienar	F. maiatza eskola	763,53 €
Lorenzo Otamendi Artola	F, maiatzeko mugikortasuna	131,10 €
Plazaola partzuergoa	F. 2025/46 2.. KUOTA	2.116,92 €
Miguel Ramon Olano	F. 30/2025	94,38 €
Miguel Ramon Olano	F. 36/2025	379,46 €
Miguel Ramon Olano	F. 27/2025	793,76 €
Miguel Ramon Olano	F. 29/2025	346,06 €
Mirua	F. 6/2025	2.497,60 €
SORGINTXO HAUR ESKOLAKO LEHEN ZIKLOA		
Seikide	F. S0000922	157,30 €
Angeniles Carrillo Ruiz	F. A 11/2025	51,16 €
Rosa Estanga Arrizubieta	F. maiatzeko garbiketak	10,45 €
Rosa Estanga Arrizubieta	F. maiatzeko janaria	86,95 €
Maite harategia	F, a1/279	884 €
	DENETARA:	23.204,14 €

Lehendakariak fakturak bozkatzera ekarri eta udalbatzan diren kide guztiek aho batez onartu egin dituzte.

6. GALDERAK ETA ESKAERAK

Ez da ez galdera ez eta eskaerarik egin.

Arratsaldeko bederatziak eta hamar gutxi direnean, bilkura amaitu eta altxatu egin da, idazkaria naizen honek ziurtatzen dudana.